gara

Sagar usaina nagusituko da Astigarragan eta Hernanin

A.M. | **ASTIGARRAGA**

Asteburu honetan sagar usaina zabalduko da Astigarraga nahiz Hernaniko bazterretan, batean zein bestean fruitu mamitsu hau omenduko baitute. Astigarragan gaur hasiko da aurten estreinakoz egingo den Sagar Festa. Atzoko aurkezpenean Eli Larburuk, Astigarragako alkateak, esan bezala, «urteko momentu politenetarikoa biziko du herriak», sagar mota ezberdinek kolorez eta usainez jantziko baitituzte Astigarragako txokoak.

Bertako sagardogileek antolatuta eta sagardoa egiteko garaia hastear dela, Sagar Festak merezi duen garrantzia eman nahi dio sagarrari, «beti sagardoa baita protagonista eta sagarra kasik ahaztua baitago». Gaurko arratsalde partean abiatuko da prestaturiko egitaraua, hala, Xabier Kamioren laguntzaz, sagardoaren kata egiteko aukera izango da udaletxean.

Bihar sagardoa egiteko tresnen erakusketa izango da egun guztian eta 18.00etan, hainbat elkarte gastronomikok bakailaoa saltsa berdean prestatzeko duten trebetasuna erakutsi beharko dute. Ondoren, eta Intxaurrondoko Gastronomi Elkarteak antolatuta, herri afaria izango da frontoian. Igandeko pintura lehiaketak eta sagardo-dastatzeak itxiko dute Sagar Festaren lehenengo jaialdia.

Astigarragan ez ezik, Hernanin ere sagarraren inguruko jaia izango da asteburuan, Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiak antolatuta. Igandean, hilak 23, sagar eta sagar produktuen erakusketa izango da goiz parte guztian, baita Hernaniko 12 sagardogileren salda dastatzeko aukera ere.



Juan Carlos RUIZ

Astigarragako lehenengo Sagar Festaren berri eman zuten atzo.

Hernanira gerturatzen direnek, gainera, sagarra biltzeko prozesua bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute eta sagardogintzaren zuzeneko erakustaldi batek osatuko du Tolareak antolatutako jaia.